

# BERRIGARA

106. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, maiatzak 8

**MUSIKA**  
PROTAGONISTA  
LABEGARAIETAN  
ASTEBURU  
HONETAN

**PAZKUETAKO**  
TXEKORKETARI  
BURUZ  
BERRIKETAN  
UDALA ETA  
ZEZENEN  
ALDEKO  
BATZORDEA


**KIROLAK**

**GARIKOITZ**  
LAZKANO  
GIPUZKOAKO  
DUATLOI  
TXAPELDUNA



**Zatoz  
gurekin!!**

**Argitarapen honen edizioko laguntzaile:**



**kutxa fundazioa**

gipuzkoa donostia kutxaren  
gizarte-ekintza



# LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

**H  
E  
Z  
I  
K  
E  
T  
A**

IEE (REM) 1. zikloa A, B, D erduetan

• **BATXILERGOA:**

Administrarritza (BAG)  
Tekniko Industrialala (BIT)

• **MODULO III FABRIKAZIO MEKANIKOA:**

• **LANBIDE HEZIKETA:**

Administrarritza  
Elektrizitate / Elektronika  
Mekanika

**E  
S  
K  
A  
I  
N  
T  
Z  
A**

AURREMATRIKULA: Maiatzak 13tik 27ra bitartean

**OHOKO 8. mailako ikasleen  
gurasoentzako bilera:**

**GAIA:**

93-94 ikasturteari buruzko  
hezkuntz-eskaintza.

**NON:**

Batxilergo Institutuan.

**NOIZ:**

Maiatzaren 11n, arratsaldeko 7etan.

**AURREINSKRIPZIO EPEA:**

Maiatzaren 13tik 31ra bitartean.

**BERGARAKO  
BATXILERGO  
INSTITUTUA**



**ETXEPARE-BILINTX**

**LIBURUDENDA**

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



BERRIGARA asteakaria  
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde  
jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:  
Jardun Elkarteak. Masterreka, 13  
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.  
Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkoroberezibar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:  
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza.  
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex  
Labaien.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,  
Estepan Plazaola, M. A.

Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J.  
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.  
Alzalai, A. Lete, J. A. Bengoa, M.  
Lizarralde, Monika Belastegi,  
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,  
Asier Madinabeitia, Josune Iharra  
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

Komikia eta marrazkiak: Josu  
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

### LAPURRETAK

Bergarako Ertzain-  
tzak Erretereriako Ar-  
belio eta Ricardo S.F.  
18 eta 24 urteko anaiak  
atxilotu zituen pasa den  
asteartean Bergaran,  
Deba Garaiko hainbat  
dendatan lapurretan  
aritu ondoren.

Horietako denda  
batean bietako batek  
zeraman txamarra sal-  
gai zegoen beste bate-  
gatik aldatu nahi izan  
zuen, zaharra bertan  
utziz. Hortik abiatuta,  
Ertzaintzak bi lapurrak  
harrapatu zituen.

Handik ordubetera,  
Ertzaintzak Arbelio  
kargurik gabe libre utzi  
zuen eta honek Ba-  
rrenkaleko beste bi ko-  
mertziotan berriz ere



lapurretari ekin zion;  
lehenean kaxatik 6.000  
pta. eraman zituen. Bi-  
garrenean, ordea, ja-  
bea ohartu eta Ertzai-  
nari deitu ondoren,  
komisaldegira eraman  
zuten. Bi anaiak epai-  
learen esku utzi ditu  
Ertzaintzak.

### Ertzaintzak Erretereriako bi gazte atxilotu zituen asteartean

## ITURRI ONETIK

### Arau Subsidiarioak Plenora

Bergarako Udalak Arau Subsidiarioak Plenoan  
onartuko ditu datorren maiatzaren 24an. Xabier  
Ieregi arkitektoak eginiko azterketan, herriak  
etorkizunean izango duen ordenazioa jasotzen da,  
gune ezberdinek jasango dituzten aldaketak  
zehaztuz. Udalak Arau Subsidiarioen gainean  
eginiko bideo bat kaleratuko du aurki, herritarrek  
egingo diren lanen ideia garbiago bat izan  
dezaten.

## ESAN DUTE


[Bergaran ospatu  
berri den  
Helduentzako  
Txotxongiloen II.  
Nazioarteko  
Mostrari buruz]

"Joan zen osteguna  
ezkeroztik Bergaran  
ustekabeko ugari  
gertatzen ari da.  
Gauza liluragarri eta  
bitxiak benetan.  
Pol-Pol tabernan,  
jendea limoiaz  
nahastutako  
garagardo mexikarra  
edaten ari den  
bitartean,  
ile gorridun  
txotxongilo bat  
sotinka hasi da eta  
neskato kementsu  
batek katarroak jota  
dagoen Drakula bati  
garondoa haginkada  
bat eman dio.  
Gaztetxea, tabernak,  
herritarrak...,  
Bergara guztia  
txotxongilo  
mozorroto  
zaigu"

BEGOÑA DEL TESO  
Kazetaria  
DEIA



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jauriaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

# LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

## EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko  
goimailako izara eta  
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

## ZUBIETA

### elektragarritza

✓ Motorren bobinaketa  
✓ Era guztietako instalakuntzak  
Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48



**ESEÑCIA DE MUJER**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 16.30, 19.30. eta  
22.30.Igandea: 16.30, 19.30 eta  
22.30.

Astelehena: 19.30

**HOT SHOTS**

Igandea: 11.30

**CHAPLIN**

Osteguna: 19.30.

**Zinea**

▼▼ **Al Pacino**  
aktore ezagunak  
Oskarra irabazi  
zuen filme honetan  
egindako erretira-  
tutako militar itsu  
baten lanagatik.

**Chris O'Donnell**  
(*Tomates verdes  
fritos*) bere zaindari  
gaztea harrিতa  
utziko du. Urrezko  
3 Globo eskuratu  
duen filma.

▼▼ **Aterrizo como  
puedas** filme  
arrakastatsuen  
sortzaileek situazio  
barregarriez jositako  
beste filme bat egin  
dute. Militar selebre  
hauekin (**Charlie  
Sheen, Cary Elwes,  
Valeria Golino eta  
Lloyd Bridges**  
tartean) primeran  
pasa dezakegu.

▼▼ **Richard  
Attenborough**  
zuzendariak  
(*Ghandi*) beste  
filme biografiko bat  
egin nahi izan du,  
oraingoan zineak  
eman duen mito  
handienetarikoa bat  
berreskuratuz.  
**Robert Downey  
Jr.** aktorearen  
erretora ez da  
batere makala.

**Erakusketak**

▼ **Taun-Taun** kolektiboaren  
erakusketa igandera arte ikus de-  
zakegu Kultur Etxean. Astebukar-  
an 12etatik 2etara eta 6etatik 8eta-  
ra.

**Jaiak**

▼ **Santikurutz** eguna astele-  
henean izan zela eta, Meza eta lun-  
txa izango dira igande honetan  
goizeko 11etan Santikurutz ermitan.

**Farmaziak**▼ **Larunbata 8:**

Camacho.

▼ **Igandea 9:**

Camacho.

▼ **Astelehena 10:**

Puy.

▼ **Asteartea 11:**

Guallar.

▼ **Asteazkena 12:**

Estella.

▼ **Osteguna 13:**

Mozos.

▼ **Ostirala 14:**

Camacho.

**Ogia**▼ **Igandea 9:** Bolintxo.

ERRETILAK  
ETA  
ERAIKUNTZARAKO  
EGUR JARTZEA



☎ 76 59 54  
BERGARA

**ETXETXO-OLAZABAL**

**MINER**  
**ardak**

Biltegi telefonoa: 76 41 41

**Ardo**  
**onak,**  
**jakina**



## **Ikuskizunak**

▼ **Antzerkia:** Tunantes del Norte taldeak "Una de kasas" ize-neko lana antzetzuko du ostiralean gaueko 10etan San Martin Plazan. Gaztetxeak antolatzen du.

▼ **Hitzaldia:** Akinjele Umoja eta Shasere Omora "Malcolm X" Elkarteko kideek beltzen eskubideak eta Malcolm X liderarren inguruko hitzaldia emango dute larunbatean 8etan Gaztetxean.

▼ **Haurrentzako bideoa:** "Amona Kuliskaren ipuinak" bideoa eskainiko da larunbatean 11etan Kultur Etxen, JARDUNek hamabostean behin antolatzen dituen emanaldien barne.

## **Kirolak**

### ▼ Eskubaloia:

• *Bergara-Hernani* (jubenil neskak). **Larunbatean** 18etan.

### ▼ Futbola:

• *Bergara-Tolosa* (lehen mailako kadetea). **Larunbatean** Ipintzan 11.15etan.

### ▼ Pelota:


• *Bergara-Billabona* (Herri Artekoko Txapelketa). **Larunbatean,**

## **Aukeran**

▼▼ **Futbito txapelketaren** azken fasea jokatzen hasiko da astebukaera honetan Labegaraietako Kiroldegian. Lehen fasea amaituta, Eusebio II eta Kriterium taldeak izan ditugu lehen (19 talde) eta 2. mailako (20 talde) lehenak. Larunbatetik aurrera, jeitsiera eta igoera promozioak, kopako lehen partiduak eta txapelduna erabakiko duen azken faseari ekingo zaio.



**5**



### PROFESIONALAK

- Tolosa-Eugi (ETB).
- Urionagunea-Martinicorena/Ladutxe eta Errasti.
- Soroa III.a-Galardi/Balerdi-Andueza VI.a.

Larunbatean arratsaldeko 4 t'erdietan Bergarako Udal Pelotalekuan.

hilak 8, 22.00.etan Frontoian.

- Elosuko Pelota Txapelketa (alebinak eta beteranoak). **Igan-dean** 11.30etan Elosun.
- Pala Txapelketako hirugarren ihardunaldia Osintxuko pelotalekuan. **Igande goizean.**

### ▼ Futbitoa:

• **Astebukaeran** Labegaraietako Kiroldegian.

## **IBARGUREN PENTSUAK**

**Biona pentsuen biltegia.**  
**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



**Ziripot**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



**Zezenketak Bergaran**

Bergarako jaietan zezenketak egingo zirela entzun nuen momentuan, nire barnean ezadostasun bat agertu zen ez bait dut honelakorik onartzen.

Ez dakit "ideia" hau nondik atera den baina irakurri dudanez, Udalak Bergaran zegoen ohitura bat berenganatu nahi du. Orduan, berreskura ditzagun beste ohitura batzuk eta hasi gaitzen berriz sorginak suteetan erretzen! Ez, noski. Ez zen etikoa izango. Beraz, etikoa al da zezenak torturatuz eta erabiliz, jai bat ospatzea? Nire ustez ez eta kaleko xurrumurruren arabera, gehiengoaren ustez ere ez.

Beraz, Udalari eskatzen diot ideia hau aurrera eraman aurretik pentsa dezala zer-nolako ohitura berreskuratzen ari den. Tortura ez da kultura. Bergaran zezenketarik ez.

**J. M. Sanchez.**  
**Zezenenganako Errespeturako Batzordeko kidea.**

**Euskaldunen gerratasun berezkoa**

Bergarako Kultur Etxean badaude liburu bitxiak. Jabier de Ybarra y Bergé delako batek 1951ko urtean argitara emandako liburua, adibidez: "Gustos Vascongados".

Honela hasten da: "Resulta difícil precisar, de no acudir a la leyenda cuales fueron los primeros hechos de armas de los vascos frente a sus enemigos".

Geroago: "Pero la característica más señalada de los vascos es su participación guerrera de su solar y aquí vemos que se hicieron amigos del cartaginés Anibal".

Gernika aldean aurkitu dira erromatarren hondakin ugari: "Y una diosa de la Fortuna"

Artikulu baten hasieran: " Dejando a un lado los hechos entre nuestros antepasados, que vinieron a formar en sol de los dos bandos de Oñaz y Gamboa -materia ajena a éste trabajo que no puede dar cabida a las rivalidades internas de los naturales-".

Baina, Jaungoikoa! edo, mila deabru!, hau zer da? Euskal Herriaren bista bat, ala Tiberioren garaiko Erroma inperialistarena?. Neri behintzat militar kutsu nabariegia datorkit, Plutarko edo Tazitorenena. "Durante 200 años los españoles mantuvieron lucha con Roma, antes de que ésta los venciera y les asimilara su espíritu".

Duda barik, Ibarra hori erabat erromatizatuta dugu, hango espiritua (arte) denetan dakusalarik.

**R. G.**

**Osakidetzako asmoei buruz**

LAB sindikatuak, SUS-OSAKIDETZAra-ko egitasmo estrategikoak euskal gizarte osoari ekar diezazkiokeen ondorio larriengatik kezkatutik eta gizarte eragile garen

aldetik zera adierazi nahi dugu:

Hau ez da sanitate sistema publikoak dituen arazoetarako konponbidea: arazook bestelako konponbidea behar dute eta gure ustez ondorengo zutabeetan oinarrituta.

Sanitate Asistentzia Euskal hiritar guztien eskubidea dela onestea, bakoitzaren egoera sozioekonomikoa kontutan hartzeke eta osasuna negozio bilakatu gabe.

Eraldaketa prozesu honek, giza eragile ororen parte hartze eta adostasuna eduki behar du oinarri. Sanitatean dauden arazoen kontsentsuzko deskribapena eginaz eta arlo guztiek batera (Administrazioa, Langileak, Erabiltzaileak) konponbidea bilatuz, Euskal Sanitate Publikoa eratzeke guztion partaidetza bermatzeko beharrezko baliabide guztiak kontutan hartu behar ditugu. Sistema, honako irizpide hauetan oinarritu behar da: doantasuna, unibertsaltasuna, berdintasuna, eraginkortasuna eta hiritargoaren parte hartzea.

Horregatik ondorengo egunetan egitasmo hori, goian aipatu ditugun irizpide-etara ekarri nahirik, kanpaina zabalara antolatu dugu ELA eta CCOO sindikatuekin batera, batez ere sanitateko langile eta hiritargoaren nahieza jasoko duten ekintzak eratuz (informazioa zabaldu, enkar-teladak, hitzaldiak, asanbladak, sinadura bilketak e.a.).

Honen bidez denok gonbidatzen zaiteztegu parte har dezazuen.

**Deba Garaiko LAB Osakidetza**

**Tiira ba!**



**Josu Okino**





**Lanbide Heziketa**

Lanbide Hezkuntza Eskolak bere heziketa planaren inguruko bilera antolatu du 8. mailako ikasleen gurasoentzat maiatzaren 13an 19etan.

**Institutua**

Batxilergo Institutuak O.H.O.ko ikasleen gurasoei maiatzaren 11n, 19etan, Institutuan egingo den bileran parte hartzeko deia egin diete.

**Txoznak**

Jaietan txoznak jartzeko eskabideak Erregistro Orokorrean (Barrenkale 7an) aurkeztu beharko dira maiatzaren 14ko ordubiak baino lehen.

**Justo Garateren lan-bilduma argitaratuko du Udalak**

Bergarako Udalak Justo Garate bergarar ospetsuak Ameriketako exilioan idatzitako artikulu eta ikerketak bilduko dituen liburua argitaratuko du uda aldean. Jose Anjel Ascunce Donostia-ko EUTGko irakasleak zuzentzen duen "La cultura del exilio" izenburuko liburu bilduman erbestean euskal literatur gizon, politiko edota ikerlariek idatzitako lanak jasotzen dira eta Garateren inguruko lanak 13. alea osatuko du.

**Artikulu bilduma**

Aipatutako lanak, 275-300 orrialde izango ditu eta aurkezpena eta egilearen autobiografiaren ondoren, honako kapitulu hauek aurkitu ahal izango dira: "Reflexiones ante los nuevos médicos" (1961), "Ramon Munibe



Liburuak Justo Garatek erbestean idatzitako artikuluak bilduko ditu.

en la Viena de la Ilustración" (1969), "Los nombres de nuestra tierra" eta "En torno a Lope de Agirre" izenburuko artikulu sortak, "Manuel Lekuona" saria eman zioten eguneko diskursoa edota Justo Garateren lan guztien zerrenda.

Liburuaren azalean Udalaren ikurrarekin batera Eusko Jaurlaritzaren

"Amerika eta euskaldunak" programaren anagrama ere azalduko da eta, horren truke, Jaurlaritzak liburuaren 400 bat ale Ameriketako euskal etxe eta erakundetara bidaliko ditu. Udalak 1.550.000 pta. inguru ordainduko ditu 1.500 aleengatik eta aurkezpena San Martin jaietarako gitea espero da.

**Giro bikaina Labegaraietan**

Jende ugari bildu zen astebukaeran Labegaraietako jaietan, ekitaldi ezberdinak jarraitzeko. Larunbatean jokaturako jubententzako txirrindulari proban Garaialde (Iberdrola) nagusitu zen eta mus txapelketako irabazleak, berriz, Migel eta Joxe arrasatearrak izan genituen, Elkoro eta Poli atxabaltarrak, Kitxo eta Felix bergararrak (auzoko lehen bikotearen saria ere eskuratu zuten) eta Pierro eta Fernando angiozartarren aurretik. Datu negatibo bezala, Jai Batzordeak astakirtenen batzuk zuhaitz txiki bat eta hainbat trafikoko seinale apurtu zituztela salatu



**GOIERRI**  
**Autogidarien eskola**

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

**MAKAILO**

Makailau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15



### 1942 eta 1933an jaiotako egunak

1942. urtean jaiotako bergarrek beren anaiarteko eguna ospatuko dute datorren larunbatean, hilak 15. Arratsaldeko 7 terdian Monja Zaharretan meza entzun ondoren, afaria izango dute Antxonin. Interesatuak izena eman dezakete Lonbide, Edel, Goxo-Toki edota Mizpildin. 1933an jaiotakoek ere anaiarteko eguna iragarri dute ekainaren 20rako. Interesatuak 762276 edota 761926 telefono zenbakietan eman dezakete izena lehen bait lehen.

### Hauteskunde Bulegoa Batzokian

Bergarako EAJ-PNVk korreo botoa eman edota argibideren bat nahi dutenentzat Hauteskunde Bulegoa jarri du martxan Batzokian, goizez 12etatik ordu 1era eta arratsaldez 6etatik 8etara.

### Cantero saritua

Benito Cantero Pol-Pol Argazki Taldeko kideak sari berri bat lortu du; oraingoan hirugarrena izan da Beasainen antolatutako Euskal Herri mailako argazki lehiaketan.



Jaietan egingo den zezenketak polemika ugari sortarazi du herrian.

## Firma bilketa zezenketen aurka

### Bihar eta etzi, Zezenen Errespeturako Batzordeak bultzatuta

Begarako jaietan egingo den txekorketaren aurka sortutako Zezenen Errespeturako Batzordeak kaleratutako idatzi baten arabera, batzorde horrek *"Begarako Udalak, hurrengo Pentekoste jaietarako zezen korridak direla eta, jarraitu duen prozesua publikoki salatu nahi du"*. Aipatutako testuan jasotzen denez, *"zezen korridak kulturalki erregresiboak dira eta Udalak animalien tratu txarreko aktibitateak bultzatzea guztiz desagokia iruditzen zaigu. Gai honi buruz berplanteamendu bat eska-*

*tzen diogu Udalari eta jaietako egitarautik korridak kentzea"*.

Era berean, Zezenen Errespeturako Batzordeak dei bat luzatu nahi die bergarar guztiei errespeturako inizatiba ezberdinetan parte hartzeko. Horrela, larunbatean eta igandean, maiatzak 8 eta 9, Bergarako hainbat tokitan zezenketen aurkako firmak jasotzeko mahaiak jarriko dira. Azkenik, Batzordeak ostiralero, arratsaldeko 7 terdian, Kultur Etxean burutzen diren bileretara joateko deitu die pertsona sentsibilizatu guztiei.

# HAGIN KLINIKA

- Era guztietako konponketak egiten ditugu -

\* \* \*

PABLO MARMOL MASTRANGELO doktorea  
MARISA PORTA PEÑA doktorea  
GABRIELA PORTA PEÑA doktorea

Simon Arrieta Plaza, 3-2.  
Tfnoa: 76 38 54  
BERGARA

Iturriotz 7 bis, behea  
Tfnoa: 79 73 88  
ARRASATE





Plenoko puntu bakarrean alderdi guztiek beren adostasuna azaldu zuten.

## Funtzionarioen segurua Plenora

*Udalak ez du funtzionarioen orain arteko egoera bultzatuko*

Joan den ostiralean, Bergarako Udalak Ezohizko Batzar bat egin zuen Udaleko funtzionario guztiak (28 denera) datozen bi hilabetetan Sasfal izeneko eta prestazio gehiagotako osasun asistentzia zerbitzu bereziarekin jarraitzea onartzeko, ostiralean bertan amaitzen bait zen erabaki hori hartzeko epea.

Diputazio eta udaletxe ezberdinetako funtzionarioek hainbat zentru pribaturekin hitzartutako Sasfal zerbitzua izan dute orainarte eta, dekretu bidez, aurrerantzean Seguritate Sozialeko errejimenean

orokorrera pasatzea erabaki da.

Ostiraleko Plenoan aho batez erabaki zenez, Udalak ez du ekainetik aurrera Sasfalen kuota ordaindunoko (% 60a inguru funtzionario bakoitzeko). Instituzioak ez daude prest pribilegio situazio horiek bultzatzen jarraitzeko eta Sasfalen jarraitu nahi dutenek beren poltsikotik 3.200 pta. inguruko kuota ordaindu beharko lukete hileroko. Beraz, Sasfalen jarraitu edota Seguritate Sozialera pasatzea erabaki beharko dute funtzionarioek bi hilabete barru.

## Tratu txarretarako programa

Diputazio GIZARTE Zerbitzuetarako Departamentuak hitzarmena sinatu du Gipuzkoako Sikologo Kolegioarekin tratu txarrek (fisikoak nahiz sikikoak) edota sexu arazoak jasan dituzten emakumeei eta tratamendua hartu nahi duten tratu txarren egileei laguntza terapeutikoa emateko. Interesatuak Emakumearen Laguntzarako Udal Zerbitzura jo dezakete, astelehen, asteazken eta ostiralean 10etatik ordubetetara.

## Hamabostaldi Kulturala Elgetan

Elgetako Hamabostaldi Kulturalarekin jarraituz, larunbatean, hilak 8, eskulanak izango dira Plazan arratsaldeko 4retatik aurrera, eta gaueko 9 terdietan magia eta ilusionismoa eta euskal dantza eta saloiko dantzak Kiroldegian. Asteartean 6etan Jabier Exposito eta Realeko bi jokalarik "Gazteria eta kirola" hitzaldia emango dute Kultur Etxean eta asteazkenean, 5etan, bularreko kanzerraz jardungo dute Txaro Beobide eta Maria Jesus Mitxelenak.



# LARRAÑAGA

## Autogidarien Eskola

Artekale 22  
Tfnoa: 76 16 63  
BERGARA



# AITZ-PE

## Osintxuarren elkarte

Aitz-Pe elkarte sortu aurretik, peña bat zegoen Osintxun. Peña honek, irteerak eta halakoak gertatzen zituen. Beste gazte talde batek elkarte bat sortzeko asmoa izan zuen, eta baita egin ere. Peña hura desegin, eta batzuk Aitz-Pe izena hartuko zuen elkarte hontara etorri ziren.

Elkartearen izenak ere badu bere azalpena. Elkartearen ostean haritzak daude. Elkarte egiteko haritz pilatxo bat bota behar izan zituzten, eta horregatik diote Aitz-Pe an daudela.

Aitz-Pe sortu zeneko garai hartan 45 bazkide ziren. Gaur egun kopuru hau 75eraino iritsi da. 75 bazkide hauetatik 12 jubilatzaileak dira. Hauek kuotaren erdia ordaintzen dute. Hasieran ez zuten ezer ordaindu beharrik, hori ezinezko egin da.

Aitz-Pe elkartearen ohorezko bazkide bat

dute. Lehen apaiz bat egon zen bazkide Aitz-Pen. Apaiz hau joan zenean, honek, hurrengoari utzi zion tokia. Bigarren hau etortzean, elkarteak honen kuotak elizan utzi eta ohorezko bazkide bezala onartzea erabaki zuen. Oraingoa hirugarren ohorezko bazkidea dugu, Karlos Ostolaza.

Aitz-Pe elkarteko bazkideen batzbesteko adina 40 urte ingurukoa da. Jende gaztea sartu da azkenaldian, eta honek adina jeitsi egin du.

Elkarte honek 1.700.000 pztako kaja batzen du batzbesteko urtean. Juanito Alberdik, Ig-



A ze logun kuadrilo!

nacio Eguren, Fernando Alberdi eta Jesus Alberdik esan digutenez, jeitsi egin da kaja hau aurreko urteekin konparatuz. Batzbesteko %3ko faltak izaten dituzte.

Egon izan dira beheko lokala erosteko ideiak, baina ez dira betetzera

iritsi. Beste elkartetan bezala, proiektuak ugar dira, baina dirua da beteko arazoa.

Aipatu digutenez, gazteek ez dute elkartera joateko ohitura handirik. Noizean behin afariren bat egiten dute, baina eromen dute nagusiagoak duten aina ohiturarik.

Sukaldari artista bezala Barrutia aipatu digute. Esan digutenez, Argiñanoren pareko omen da denetik gertatzen baitu.

### FITXA TEKNIKO

**SORTU:** 1955ko maiatzaren 22an.

**BAZKIDEAK:** 75.

**HELBIDEA:** Osintxu.

**PRESIDENTEA:** Juanito Alberdi.

**ELKARTEAREN EGUNA:**

Batzar Orokorra eguna

**URTEKO KUOTA:** 12.000 pzta.

*Ainboa Lete*



**Gizon Emakume**

Barrenkale 35 BERGARA

**CAMACHO**


Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35  
BERGARA

**URRATS**  
Kafetegia

Ibargarai Tfnoa: 76 52 92  
BERGARA

**HEMEN**  
edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

**ONENA**  
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



# Elkartuta JARDUN beharra daukagulako...

## EUSKARAZ BIZI

Jose Angel  
MIKEO GOROSABEL  
JARDUN Elkarteko  
Lehendakaria.

**J**ARDUN Elkartearen hasierako pausoak zeintzu izan ziren gogoratzerakoan, biltzera eta proiektu hau martxan jartzera zerk bultzatu gintuen datorkit burura. Euskaldunok aspalditik eduki dugu gure hizkuntza eta kulturarekiko kezka, euskaraz inprimaturiko lehenengo liburuetan ere hizkuntzaren egoerari buruz idazle haien ausnarketa azaltzen baitira. Esan beharra dago halaber, euskaldunok jakin izan dugula momentu historiko bakoitzean kezka horiek bideratzen; gure kultura babesteko eta etorkizuneko gizarteari, kultura hori, berriztua emateko bideak sortzen. Baina orain dela bi urte gure kezkak, batez ere, euskal kulturaren eta hizkuntza beraren inguruan zeuden hutsune batzu ziren: euskara jakitetik erabiltzera dagoen salto ikaragarria, euskaraz eginiko

komunikabideen urritasuna, kultur ekintzak, ... berba gutxitan esateko euskaldunok euskaraz bizitzeko trabak besterik ez genituen aurkitzen.

Egoera horren aurrean arazoa berez konponduko delako usteak ez ginderamatzan inora, eta euskaldunon indarrak bilduz eta elkarlanean ipiniz ikusten genuen zerbait egin zitekeela. Goitik behera konponbidea etorriko zelakoaren ustea alboratuz, martxan jarri eta gure etorkizunaren sortzaile izatera pasa behar genuen eta lehenengo bileratik bergarar asko uste berdinekoak zirela nabaria izan zen.

Holaxe izan zen JARDUN Elkartearen hasiera eta zabaldu nahi zen eta nahi den mezua. Euskaraz bizitzeko baldintzak eta herri euskalduna lortzeko bidea motzagoa edo luzea joa izatea guztion zeregina baika.


1990.eko maiatzaren 17an egin zen UNEDeko areto nagusian JARDUN elkartearen Sorrera Batzarra.



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!



# Elkartuta JARDUN beharra daukagulako...



**Mirari  
ALBERDI**

*"Argi dago  
administrazioak  
hartzen dituen  
neurriak ez direla  
nabikoak izaten.  
Horregatik herri  
bakoitzean, bertan  
sortutako  
mugimenduak  
beharrezkoak dira,  
JARDUN bezalakoak  
premiazkoak dira,  
horietan lanean  
dihardutenak  
irtenbideak topatzen  
saiatzen direlako,  
nabiz eta emaitzak  
bain garbi ez ikusi".*


## ...eta JARDUN sortu zen

### ORAIN DELA 3 URTE

Hiru urte beteko dira egun  
gutxi barru JARDUN  
Elkartearen aurkezpena  
egin zenetik.

UNEDeko areto nagusia  
jendez gainezka zela eta  
jendearen jakinminari  
erantzun nahian Estepan  
Plazaola (Udaleko Euskara  
Zerbitzuko ardurauna)  
Juan Martin Elexpuru,  
Mirari Alberdi, Iñaki  
Larrañaga (SIADeco  
ordezkaria), Iñaki Artola,  
Jesus Garmendia (AEDko  
zuzendari izandakoa) eta  
Agurtzane Arriolak  
presentatu zituzten  
JARDUNen sorreraren  
arrazoiak eta helburuak.

*"Herria  
euskalduntzea ez da  
lortzen bi-biru  
urtetan eta ez du  
JARDUNek bakarrik  
lortuko, baina  
hasierako behurua  
pixkanaka-pixkanaka  
betetzen doaztela  
nabaria da. Nabaria  
da, JARDUN bezalako  
elkarterik ez dagoen  
herri batetara joateko  
ikusteko, gutxi bada  
ere, zerbait lortu  
dugula. Detalle  
txikietan eta  
herritarren jarreran  
igartzen da batez  
ere. Ez dugu pentsatu  
behar JARDUN edo  
BERRIGARAK erdako  
komunikabideen  
eragina gaindituko  
dituztela, baina  
daukaten  
gorputzarendako,  
buen eragina oso  
baundia dela  
nabaria da".*



**Juan Martin  
ELEXPURU**



## EUSKERA, GUZTIONA

"JARDUN sortzeko abaleginetan lehendabiziko bilerak egiten hasi ginenean, guztiok argi geneukana zen elkartea «apolitiko» izan behar zela: inorena eta guztiona izan behar zela, ez zela inolako alderdi politikoren agindupean izan behar. Erizpide horiek kontutan izanda aurkeztu genien proiektua alderdi politiko ezberdinei eta guztien barrera oso ona izan zen".



**Jose Mari  
LARRAÑAGA**

Sorrera ekitaldian argi eta garbi utzi zen moduan JARDUNen helburua bergararrak euskaraz bizi daitezen giroa eta baldintzak sortzea da, horretarako behar diren bitartekoak sortuz eta ekintzak bultzatuz. Bestalde, euskara guztiona denez, JARDUN elkartea apolitikoa eta apartidista izateko helburuekin jaio zen, bertan euskararen alde lanerako prest dagoen edozein ideiatako jendeak lekua izan duelarik: «euskaraz bizitzea gauza normala bihurtuko da. Elkartu beharra dago eta alderdikeria alde batera utzi. Ea Euskal Herria bere izenaren jabe izaten den» esan zuen orduan Juan Martin Elexpuruk.

## AURPEGI BERRIAK

Sorrera ekitaldian izan zirenek osatu zuten JARDUNeko lehen Zuzendaritza Batzordea eta euren ardurapean eman ziren lehendabiziko urratsak. 250 bergarar egin ziren JARDUNeko bazkide, BERRIGARA astekaria martxan jarri zen eta poliki poliki lan taldeak egituratu ziren. Hiru urte joan dira eta hasierako haiek beste batzuei utzi diete lekukoa. Beste 100 bat bergarar egin dira bazkide eta orain dela bi aste eratu da Zuzendaritza Batzorde berria. Lan taldeak itxura hartu dute, baina oraindik egiteko daukagun bidea luzea da... Nahi baduzu, zatoz gurekin.



**Karmen  
URRUTIA**

"Udal langilea izanik eta bertako egoera ondo ezagututa, argi neukan administraziotik bakarrik ezer gutxi lortu zitekeela euskararen alde lan egiterako orduan. Administrazioa ezin daiteke heldu toki guztietara eta horrexegatik ikusten nuen euskara bultzatuko lukeen herri mailako, kale mailako, elkarte bat sortzearen beharra".

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!**



# Elkartuta JARDUN beharra daukagulako...



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!!



IZENA.....  
ABIZENAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....  
ADINA.....  
TELEFONOA.....

MOZTU ETA BIDALI JARDUN  
ELKARTERA (MASTERREKA 13.  
76 08 19)





# ZURICH TALDEA

## ASEGURUAK

ZURICH

VITA

HISPANIA

UNIBER

CAUDAL

**"ZURICH" ASEGURU GAIETAN EUROPA GUZTIKO BURU DEN TALDE SUIZARRAK, MERKATUKO ASEGURU-ESKAINTZARIK ZABALENA JARTZEN DU ZURE ESKU:**

AUTOA, ARRISKU ASKOTAKOA, ISTRIPUAK, ETXERAKO KONBINATUAK, MERKATARITZA ARLORAKOA, EDOZEIN ARRISKUREN KONTRAKOA, ERAIKUNTZAK, EKIPO ELEKTRONIKOAK, INDUSTRIENTZAKO GOI-MAILAKO SEGURTASUNA, GARRAIOAK, JUBILAZIOA ETA FAMILIAREN BABES OSORAKO PLANGINTZAK, PENTSIO PLANAK ETA FONDOAK, etab...

ESKATU INFORMAZIOA:  
**JESUS ELKORO**  
**ARANBERRI**  
 BERGARAKO AGENTEARI



Irala Kalea z/g  
 (Ariznoa Kalea zena), 2 behea.  
 Zabaldu berria.  
 Tfnoa: 76 57 85

## BERGARAKO JAIETAN **SALOUra**

• Maiatzaren 28tik ekainaren 1era bitartean •

	NAGUSIAK		HAURRAK	
	Autobusarekin	Autobus barik	Autobusarekin	Autobus barik
• LOGELA BIKOITZA	14.775	9.000	13.200	7.100
• LOGELA HIRUKOITZA	13.350	8.000	11.700	5.600
• LOGELA LAUKOITZA	13.000	7.000	11.000	4.900

Joan-etorria autobusez,  
 pentsio osoa, bi, hiru eta  
 lau lagunentzako logelak,  
 zenbait hondartzatara  
 sarbidea dutenak.  
**GUZTI HAUEK PREZIOAREN  
 BARNE!!**

**ARGIBIDE GAHIAGORAKO eta ERRESERBAK EGITEKO:**

MARSANS BIDAIAK, Irala Kalea z/g (Lehen Ariznoa zena), 2 behea ☎ 76 57 85



# UNED: Urrutirako Unibertsitatea Bergarako Plazan


*Erret Mintegiko egoitza txiki geratu denez, egoerari aurre egin nahian*

**Euskalerrian UNEDek lau zentru ditu, Iruñean, Gasteizen, Santurtzin eta Bergaran. Gure herriko unibertsitatean aurtengo ikasturtean 2.300 ikasle daude matrikulaturik.**

Horietatik 1.730 ikasle lizentziatura (guztira 7 lizentziatura daude auzerari) lortzeko ari dira eta beste ikasleak unibertsitateak antolatzen dituen ikastaro berezietan (euskarara, masterrak...) daude matrikulatuta. Ikasle gehienak 25 urtetik gorakoak dira eta normalean Zuzenbidea eta Ekonomikak aukeratzen dituzte. Lizentziatura horiek egiteko motiboak beraien lanean gorantz joatea, langabetuak beraien kurrikulumari beste karrera bat gehitzea eta azkenik, badago bere kultur maila hobetzeko asmotan UNEDera joaten den ikaslerik ere.

## **Etorkizuna**

UNED 1976an sortu zenetik asko aldatu dira gauzak eta Juantxo Ma-



Juantxo Madariaga, orain dela 3 urtetik Bergarako UNEDeko zuzendaria.

dariagak hori baieztatuz zera dio "gu sartu gineanean ez zegoen EHURik, ezta Santurtzin UNEDek duen zentru berria ere, eta noski, garai haietan ez zegoen orain dagoen eskaintza. Orduan patronatoa (Diputazioa, Udala, Euskadiko Kutxa eta Gipuzkoako Kutxa) eta guk irakasleok, definitu egin beharko dugu gure etorkizunari buruz".

Etorkizuneko erronkari aurre egiteko dirua garrantzitsua da eta arlo horretan Madariagaren ustez patronatoak dauka

azken hitza: "orain gure aurrekontua asko igo da eta etorkizunean gehiago igoko da eta gure zentrua lehiakorra izateko azpi-egitura bat behar dugu: ahulkiak, bulego handi-agoak, liburutegi hobea ea... orain daukagun zentrua txiki gelditu zaigu eta. Guzti hori konpontzeko dirua beharrezkoa da eta hor azken hitza patronatoarena da".

## **Maila handiko irakaslegoa**

Diru kontuetan azken

hitza patronatoak izango du, baina Madariagak uste du proiektuak merezi duela: "gu hemen irakasle talde bat lanean gaitu eta dagoeneko uste dugu erakutsi dugula badakizkagula unibertsitate aurrera eramateko ahalmenik. Betiko aktibitateak mantentzen eta gehitzen ari gara, baina behar dugu da momentu batean etorkizunean, hementxean 2-3 urtera, zentro hori aldatuko dena".

Aldakuntza hori zertan datzan galdetu diogu Madariagari, eta berak zera erantzun digu: "nire ustea



orain ditugun aktibitate guztiak mantendu beharko lirateke, baina eskualdeak edo Euskalerriak dituen beharrei erantzuteko, bezkuntza arloan, instituto bat edo horrelako zerbait sortu beharko litzateke. Nik, orain daukagun adarretatik ezer ez nuke kenduko baina adar batean ikaslerik ez balego, noski, kendu egin beharko litzateke".

Bide hori jarraituz urtero ikastaro bereziak antolatzen dituzte: "aurten kontsumoari buruzko masterra antolatu dugu eta harrera ezin hobea izan duenez datorren urterako berriz antolatzeko asmoa daukagu, momentu honetan datorren urterako auditoriei buruzko ikastaroa antolatzeko asmoa dugu eta ingurugiroari buruzko ikastaroak ere berriz egingo ditugu. Horretaz gain Euskara eta psikomotrizitate ikastaroak egiten jarraituko dugu" adierazi digu Madariagak.

### **Kataluinian katalanerazko UNEDaren atzetik**

Duela gutxi Euskalerrian UNEDeko 3 zentru zeuden bakarrik, Nafarroan, Araban eta Bergaran, baina orain beste zentru berri bat Santurtzi egin dute eta horrek Bergarako zentruari ikasleak kendu dizkio, baina Madariagarentzat "lehen ikasle gehiegi geneukan, gutxi gora behera 2.300 ikasletik 1.700era jeitsi gara. Alde batetik hori ongi dago, denontzako lekurik ez bait genuen, baina bestetik gaizki dago ikasle kopurua jeistearekin batera jasotzen dugun subentzia

## **"Karrerak euskaraz egin ahal izatea gustatuko litzaidake". JUANTXO MADARIAGA, UNEDeko ZUZENDARIA**

ere jeitsi da eta".

UNEDen karrera bat egiterako orduan gazte-lera da aukera bakarra eta oraindik ezin daiteke karrerarik euskaraz egin. Horri buruz Madariagak hurrengo erantzun digu "gu sortu ginenean ahal-egindua ginen bertako bizitza euskaraz egiten, baina arazo bat dago, azterketak erderaz egin behar direla eta erabiltzen dugun materiala ere erdaraz dago. Guk hasierangaldetu genuen nola konpon genezakeen arazo hori, baina Madrildik ez genuen erantzun onik jaso. Baina Konstituzioari begira guk badaukagu azterketak euskaraz egiteko eskubidea, baina gauza bat da eskubidea eta beste bat errealitatea. Arazo hori pil-pilean dago Kataluinian eta Generalitateak esan du arazo ez bada konpontzen eurek beste UNED katalan bat eratuko dutela, baina katalanak asko dira eta gu, aldiz, gutxi eta hortan ari dira negoziatzen Katalanak eta Madrildarrak".

### **"Normalean 6-7 urte karrera egiteko"**

UNEDen ikasketak urrutira egiten dira, normalean ikasleak bere asignaturak telefonoz, irratiz edo korreoz jarraitu behar ditu, baina Ber-

garan horretaz gain, ikasleari, astean behin, klaseak hartzeko aukera ematen zaio. Hala eta guztiz ere, ikasleek normalean karrera ez dute dagokion denboran amaitzen "normalean jendeak kurtsoko asignatura gutxi batzuk aukeratzen ditu, eta gainera oso zaila da. Hemen


sekulako materia pila daukagu eta ikaslearentzat oso zaila egiten da" adierazi du Madariagak.

Azterketak ere bereziak izaten dira, urte osoan zehar ikasleek bi aukera dituzte asignatura gainditzeko eta epaimahaia osatzen duten irakasleak Madrildik etortzen dira.

### **Aurrekontua zehaztuta**

Bergarako UNEDaren barruan Patronato bat dago, patronato hori 4 elkartek osatzen dute: Diputazioa, Gipuzkoako Kutxa, Euskadiko Kutxa eta Bergarako Udala. Horiek urtero unibertsitatearen urteko aurrekontuaren %70a ordaintzen dute. Aurten UNEDek 198 miloitako aurrekontua du eta horietatik Diputazioak 73 miloi, Gipuzkoako Kutxak 32 miloi, Euskadiko Kutxak 13 eta azkenik, Bergarako Udalak 8 miloi ordaindu ditu. UNEDek pasa den urtean 7 miloitako defizita izan zuen eta hori patronatoak ordaindu zuen, aurten gauza bera ez gertatzeko patronatoa irailean bilduko da diru irteerak kontrolatzeko. Baina Euskadiko Kutxak aurten laguntza eman duen arren, hurrengo urteetan berari dagokion portzentaia jeisten joango da, azkenean, hori bai poliki-poliki, dirulaguntza erretiratuko duen arren. Etorkizunean UNEDeko, patronatoak diru kopuru hain handia ordaindu beharrik izan ez dezan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailarekin harremanetan jarriko da, honek diru gehiago jartzeko. Bestalde, UNEDa jendez leporaino dago eta zurrumurruek diotenez Mariaren Lagundiko etxe berria erosteko interesaturik leudeke, baina horretarako dirua behar da eta patronatoak nahikoa jartzen du jadanik. Beraz, lokal berria erosteko aukera bakarra Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango litzateke.





APPÉNI<sup>z</sup>

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

## Non egiten duzu kotxearen azterketa?



**Jesus Arregi**  
42 urte, langabetua

Mirandan egin izan dut orainarte. Hala ere Bergaran jartzen dutenean hemen egingo dut noski.



**Beatriz Astigarraga**  
30 urte, ikaslea

Usurbilen, ez dut erreztasunen kontua kontutan hartzen. Eta Bergaran jartzen badute, primeran.



**Izaskun Pardina**  
28 urte, langilea

Urnietan, bidean tokatzen zait eta. Baina Bergaran jarriz gero hemen egingo nuke.



**Jose Mari Fernandez**  
34 urte, langilea

Gasteizen edo Mirandan. Jakina denez, azterketa pasatzeko ematen dituzten erreztasunak kontutan hartzen dira beti.



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**HARATEGIA**

**ANTIA**

**URDAITEGIA**

**Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.**

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

## MARKIEGI Automobilak



Leizeaga, 1  
(San Lorentzo Pol. Ind.)  
☎ 76 35 09

- Edozein eratako ibilgailuen karrozeria konponketa
- Mekanika orokorreko zerbitzu berria

**ADI ORAIN:**  
I. I. T. (I. T. V.)rako errebisioa doan  
(Direkzioa, frenoak, amortiguadoreak...)





**Kontuz,  
hauteskundeak!**

Espainiako legedia.

Indar korrelazioa herrialdeka.

Espainiarentzat erabakiorra delako aurkeztuko da X. Zerrendak, hautagaiak, senadoreak, berrikuntza, koalizioa, diputatua, kongresoa, emaitzak, postuak, presidenteak, demokrazia, hautagaitza, sozialdemokratak, demokratikistauak, informazioa, desinformazioa.

Ez dugu kolokan jarriko x gobernu.

Interes orokorrekoa da X-ri lehen postua kentzea.

Hitzartu, alderdia, aliantza, interesak, batzorde probintziala, gestioak, zerrendaburuak, europarlamentaria, finantzaketa, adierazpenak, ustelkeria, eskuina, ezkerria, agintea, erdia, gardentasuna, sozialista, nazionalista, atzerapausua, gobernuburua, boto lokala, jokoa, legegintzaldia, itun soziala, idazkariordea, konpromesua, demagogia.

Ez dugu nahi abantaila hauek enpresariarentzat soilik izatea onuragarri.

Sekula izan ez duen joko politikoa edukiko du X-ek Madrilen. Errotik baztertu zuen soldata politika ekonomi krisiaren erruduna denik.

Gehiengo absolutua, asmoak, urrezko botoa, buruzagia, kontrola, bozkatu, dirua, abstentzioa, probokazioa, programa, sinatu, gezurtatu, inflazioa, dirua, alderdi interes.

Mundu honetan mila motibo kantatzeko alai badira!!

**Joxe Lazkano**



**Maitagarri  
den norbait  
galtzea**

Nola da posible norbaitek bapatean zure albotik alde egitea? Nola jasan zure inguruko jendeak lasai, ezer pasa ez balitz bezala, aurrera jarraitzea? Mundua biraka doala zure barneko tristura eta minbiziak jabetu gabe?

Galderak eta galderak sortzen dira une latz hauetan. Orduan nabarmentzen dugu geure arazo pertsonalak zein txikiak eta zentsurik gabekoak diren bizitzaren dinamikaren aurrean, etenezineko dinamika honen aurrean. Negar pertsonalaren balioak jabetzen zara, zure baitan daramazun maitatzeko gaitasun izugarriak.

Une hauetan sentitzen dituzu maite zaituzten bihotzeko lagunak. Alaitasuna, irrifar bat... maite zaituzten jendearen ia lortu ezineko eta lortu beharreko mugak.

Bihotzez maite zaituzten pertsona hauengatik berpizten da alaitasuna. Maitasunak altza eta bultzatzen zaitu bizitzera.

Hona hemen erlazioa, tristura eta alaitasuna, denerako bidea berriro ere errepikatzen delarik: MAITASUNA.

**Nora Askargorta**

**EDERRAGO EGINGO ZAITUZTEN SARIAK**

**LILURA** edertze-institutuan sari asko dituzu zain. Bertan jasotzen duzun zerbitzu bakoitzeko, martxoan eta maiatzaren zozketatuko diren 63 sari bikainetako bat lortzeko aukera emango dizun txartel bat eskuratuko dituzte.

**BERROGEITAMAR LOTE**

HYGEA, higiene pertsonalerako produktuak edo, SORTEGF, ilearen edertasunerako produktuak.



Lote bakoitza:  
**12.000 pzta.**

**HAMABOST "EDERTZE TXEKE"**

Edertze Integralezko Zerbitzu-Zentro batean erabateko tratamendua jasotzeko aukera emango dizuten "edertze txekeak".



Txeke bakoitza:  
**30.000 pzta.**

**ASTEBETEKO "OSASUN ETA EDERTASUN" OPORRAK**

Bi lagunentzako egonaldia, Italian, Gardako lakuaren ondoan, PORTOFINO'S BEAUTY FARMEN instalazioetan, gastu guztiak ordainduta.



Sariaren balioa:  
**700.000 pzta.**

**NOTARIO ETA GUZTIKO BI ZOZKETA, 1993ko MARTXOAREN 15ean ETA MAIATZAREN 10ean**



## Beheko Taberna

Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.


ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## OILAGORRA Taberna

Barrenkale 21, BERGARA


## KAILASH ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto  
Hispano Amerikarrean  
diplomatutako profesionalak  
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia  
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)



### □ Kubako erritmoak ikasten

Asteartean eman zitzaion hasiera Batxilergo Institutuko gimnasioan Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako saltsa ikastaroari. Maiatzaren 27ra bitarteko astearte eta ostegunetan 50 bat lagunek (horien artean bi gizonzko bakarrik) dantza estilo honen sekretu guztiak ikasteari ekingo diote **Arnaldo Patterson** maisu kubarraren eskutik. *Maestro Páterson* Kubako Taide Nazionaleko koreografo eta maisu nagusia izana da eta datozen egunetan bere ikasleak Karibeko erritmoaz jabetu daitezten saiatuko da. Ea ba!!



Arnaldo Patterson,  
Karibe aldetik etorritako  
saltseroa, bergarorak  
animatu nahian.



## Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
Berezano auzoa OÑATI





□ **Mikel Markez eta bere taldea**

JARDUN Elkarateak antolatuta, Mikel Markez kantari ezagunak euskal kanten inguruko ikastaro bat ematen ari zaie 20 bat bergarri. Lau astetan, eta egunero bi orduz, astelehen eta asteazkenetan Gartzela Zaharreko lokaletan biltzen dira beren ezaguerak hobetzeko asmoz. Ea ikastaroa amaitutakoan (maiatzaren 19an) konozimendu horrek praktikan jarri eta Mikel bezain abeslari arrakastatsu eta erromantikoren bat irtetzen den eskola honetatik...




□ **Berdeguneak garbi**

"Ez dezala zikindu" irakur daiteke Bergarako hainbat lorategitan Udalak jarri berri dituen karteltxoetan (argazkian ikus daitekeena bezalakoak), txakurren zikinak leku publikoetan aurkitzeko zoritxarra izan ez dezagun. Momentuz txakurrek irakurtzerik ez dutenez, beren jabeak izan beharko dira kartelak irakurri eta agindua betearazteaz arduratu beharko direnak...

**Zertan  
dibardute  
ba?**

CARLOS ARRONDO



Diputazioko Nekazaritza Departamentuaren programaren barne, 51 urteko zinegotzi bergarria Israelen izango da igandera arte bertako granja, kooperatibak edota nekazal teknikak aztertzen.

**2. ERREJIONALA**



Joan den astean Kostkas taldeari 5 eta 0 irabazi ondoren, Bergara K.E.ko futbol taldeak igoera promozioa jokatuko du maiatzaren 16 eta 23an, Donostiako Grosekoren aurka ziuurrenik.

**ederTU**

**ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK**

Barronkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

**A  
R  
R  
A  
N  
O**



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA



## Trajia enkargatzen

Markiegigana jua dira bi gazte trajia enkargatzera. Bata txikixa zan; bestia aundixa. 3.000 pzta. balio zeban orduan trajiak. Txikixak diño:

- Zu, baiña, nik orren tela erdixa biot. Neri merkiago eñ biestazu.

- Trajia, trajia dok, -diño Markiegik-. Bueno! Txaleko barik nai bok 2.500.

- Eñ ba txaleko barik.

Urten dabe biak dendatik eta lu-ziak esatetsa:

- I, baiña, pagatzeko asmorik ez, eta zertan ibilli diskuziñuan?

- Berak gitxiago galdu deixan.

## Suma y sigue

Eibarko "tunante" batek multa asko zekazen ordaintzeko. Aspertuta Ayuntamientoak, deitu zetsen egun baten eta, jueza aurrian zala, ordaintzeko zekazen multen lista aundi bat irakurri zetsan. Berak, serio-serio dana entzuten zeban.

Azkenian, diñotsa alkate jaunak:

- Badaukazu zezozer esateko?

- Bai, jarri eizu lista horren azpian: SUMA Y SIGUE.

*Pedro Zelaia*




Argazkian, Luis Laskurain (betaurrekoduna) alboan Iberiako hegazkina pilotatu zuen komandantea eta Madrileko alkate ordea dituela. Lurrez betetako egurrezko kutxa eskuekin eusten ikus ditzakezue. Luis Laskurain 1959 iritsi zen alkatetzara, ofizialki 1963an izendatu zuten arren eta 1975an hil zen arte iraun zuen. Ondoren, Jose Luis Elkorok ordezkatu zuen. Laskurain agintean zegoenean, Franco hil eta gero hauteskunde demokratikoetan hautatua izan zen lehen alkateak, Jose Antonio Zabalak, bete zituen alkate orde lanak.

## BERGARAKO LURREZ BETETAKO KUTXATILA PARAGUAYRA

Atzo inauguratu zen Madrilén Espainia eta Paraguay arteko Iberiaren hegazkin-linea berria. Inaugurazio bidai horretara gonbidatutakoan artean Don Luis Laskurain Ugalde izan zen, Bergarako alkate eta probintzi diputatua dena. Laskurain jaunak Bergarako lurrez betetako kutxatila artistikoa eta Paraguayko hiriburuko agintari nagusia "Bergarako ohorezko alkate" izendatzen duen pergaminoa eraman zituen. 1968-V-7. La Voz de España. Alustiza.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak



## POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

## DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihai inprimaketak

**AKORT**

San Lorentzo, 7  
behea. Tel. 76 50 39

# YAZKI

UME

GAZTE

**Neska eta Mutil**

Irizar 3

Ibargarai 8

Tfnoa: 76 16 54

Tfnoa: 76 54 73



# BONOFOTOA



M. A. Elkorobereizbar

## JUAN CARLOS ARRIARAN

JUAN CARLOS ARRIARAN "Sali" irabazi du ANEZKAK emandako BONOFOTOko saria (bere arrebak jaso zuen). Azken BONOFOTOko etxea ARRESE ETXEA zen eta IRIZAR IBILBIDEA, BARRENKALEA ETA ARRESE ZEহারBIDEA rekin egiten du kantoia. ZORIONAK "SALI"ri eta besteek segi jokatzen!!



*Zein da elkarte honen izena?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

**Saria: ANEZKAK  
emandako saria**

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA  
Errotalde Jauregia Bergara**

**EMAIOSU BUELTA ORRIARI...**





➔ ... EMOIZU BUELTA BAT ESPOLOITIK



ZIPRISTIN OINETAKOAK  
☎ 76 57 36



**anezka** ☎ 76 59 25



ALDASORO OINETAKOAK ☎ 76 01 18



**BERGARA PIEL**  
☎ 76 20 70



**ZUHAIZTI TABERNA** ☎ 76 59 22

**ESPOLOIKO DENDARIAK**  
**BISITA GAITZAZU**



## Pelotan aurrera

Bergara K.E.ko pelota sailak Herri Arteko Pelota Txapelketaren 2. kanporaketa jokatu du Billabonaren aurka, ostiralean 22.30etan Bergaran, Beasaingo taldea 4 eta 2ko emaitzarekin kanporatu ondoren.

## Goi mailako gimnastak

Ariznoa Gimnasia Erritmikako lau gimnastak emaitza bikainak lortu zituzten Euskadiko Banakako Txapelketan, igandean Altzan: Amaia Ortiz de Urbina 10. sailkatu zen infantiletan eta juniorretan, berriz, Ana Sebaiek 6. postua lortu zuen, Amaia Arrietak 8.a eta Saioa Garitanok 10.a.

# Javi Perez Bergara futbol taldeko entrenatzaile berria

Javi Perez eibartarra izango da Bergara K.E.ko futbol talde nagusiko entrenatzailea hurrengo denboraldian, Iñigo Zaitegi presidentea izango denak baieztatu nahi izan ez duen arren. Asteazkenean Bergaran bildu ziren Bergara K.E.ko zuzendaritza hartuko dutenak eta Javi Perez eta badirudi, iaz bezala, kanpoko entrenatzaile bat ekarriko dutela.

Momentuan Perez Jubencil Ohorezko Mailan ari den Eibar Urko taldearen (3.a sailkapenean) entrenatzailea da, 33 urte ditu eta bere jokalaria denboran 3 urte eman zituen Bergaran jokatzeko (hori-etatik lehena hirugarren mailan). Bergarak gaur egun daukan ekipoari buruz, ezer gutxi ezagutzen du Javi Perezek;



Javi Perez Eibar Urko taldeko entrenatzen ari da aurten.

*"aurten bizpahiru partidutan ikusi ditut eta ez daukat ideia garbirik. Denboraldi amaierara arte itxaron beharko dugu bajak eta alta posibleak aztertu eta ekipoa finkatzeko".*

Jose Luis Beitia Bergara K.E.ko entrenatzaileak, berriz, badirudi taldea

utzi egingo duela denboraldi amaieran. *"Futbol baseaz arduratzekeo ideia komentatu zen baina emaitza onekin ez bazaituzte baloratzen, beharbada beste arrazoi batzuk egon daitezke atzean. Kasu horretan onena beste talderen batera alde egitea da".*

## Eugi-Tolosa Bergaran

Patxi Eugi eta Joxean Tolosak atzo goizean egin zuten material aukeraketa larunbatean Bergarako Frontoian jokatu duten partiduari begira (ÉTB-1, 16,30). Eugik 103 eta 105 gr.ko pelotak aukeratu zituen eta Tolosak material astunagoa nahiago izan zuen (105 eta 106 gr.) Partiduak ikusmin handia sortu du pelotazaleen artean eta bihar Frontoia bete egingo dela espero da. Badirudi dirua naparraren alde irtengo dela hasieratik. Irabazleak Arretxeren aurka jokatu beharko du hurrengo kanporaketa maiatzaren 23an Tolosako Beotibarren.



## AGIRREBEÑA

Oinetakoak  
Erropa denda  
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

## ETXALAR

KRUASANTEGIA

Gosariak eta  
meriendak

Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

## GANBARA

Berezitasunak:  
Pintxoak eta  
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T  
B  
E  
R  
N  
A





**1943eko kintoen urrezko eztaiak aurten**

**O**rain 12 urte 1943.eko kintoak bildu zireneko argazkia duzue goikoa. Aurten, beraz, beren 50. urteurrena ospatzen dute eta bihar, 19.30etan, Trinidadetan, hildakoen omenezko meza entzun ondoren, Zumelaga Jatetxean bilduko dira berriz. Gure aldetik, egun ona igaro dezatela opa nahiz diegu.

Argazki honetan Frontoian 1981eko apirilaren 26an ateratako argazkia. Egun horretan gainera Realak lehen liga irabazi zuen Gijonen eta imajinatzen dugu hori ere zelebratuko zutela. Ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Martin Mujika, Jose Fernandez, Maximino Cabo, Juan Hervás, Kruz Jauregi, Lucio Urzelai, Luis Urrutia, Mariano Martinez, Andoni Ugalde, Paco Iturrospe, Jose Mari Artola eta Jose Arejola.

**Bigarren ilaran:** Vicente Olabarria, Manuel Mondragon, Lucio Gallastegi eta Pantaleon Oregi.

**Makurtuta:** Valentin Umerez, Felipe Alzelai, Ignacio Lopez, Clodomino Menor, Angel Azkarate, Higinio Igartua, Victor Irazola, Marcos Yurrebaso, Lucio Barrutia, Ignacio Madinabeitia, Pedro Zumelaga, Sabino Celaya, Cristobal Moral, Esteban Basauri, Fulgencio Larrañaga, Jose Mendibil, Jesus Altuna, Jose Mari Juaristi, Jose Mari Azkarate, Jose Olabide eta Enrique Lete.

*Argazkia: Jose Maria Azkarate*

**MAHER**  
Biltegiak L.E.  
Oihal etxea  
Bidekurutzeta 29,  
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

*Pepelu*  
**Ileapaindegia**  
Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

**PUB ROSA**  
  
Tfnoa: 76 38 57  
Irala 1



**ETXEBIZITZA**

- Garajea salgai** Urrats azpian. 1.200.000 pzt. ☎ 76 57 93.
- 3 pertsonarentzako **pisua alokairuan** hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.
- Garaje bikoitza** alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.
- Artzamendin pisua** salgai ☎ 74 40 82.
- Garajea salgai** Iparragiri kalean. ☎ 76 28 52. Egurdian edo gauean.
- Artekalen pisua salgai** ☎ 76 55 63. Gauez.
- Pisua alokatzen da** Zurraderon. ☎ 76 23 27.
- Garajea alokatzen da** Zurraderon ☎ 76 21 39.
- Pisua salgai** Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauez).
- Garajea salgai** Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

- Pisu haundia salgai** Urteagan. Terraza, sukalkdea, jangela, 3 logela... Merke. ☎ 76 50 18
  - Asteburuetan **Madrilera** joan-etorria egiteko laguna behar dut ☎ 79 53 12.
  - Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.
  - Pisu edo buardilla bat** hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 58 37.
  - Garajea salgai** Ozaetan ☎ 76 56 94.
  - Kerosenozko estufa** japoniarra salgai ☎ 765584.
  - Eskiatzeko botak** (44a) eta **Snow-Board eskiatzeko tabla** salgai ☎ 76 16 33 (Iñaki).
- DENETARIK**
- Mendiko bizikleta** (GAC) salgai ☎ 76 47 94.
  - Kanping denda salgai** (haundia). ☎ 76 26 73
  - Nintendo bat salgai.** 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

- MOBYLETTE CADY motor bat salgai.** ☎ 76 54 73 (lan orduetan).
- Skiak** (1.40 zm) eta **botak** (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.
- Egunero **Bergaratik Zornotzara** joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).
- Paseozko bizikleta** (bolero) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.
- Etxeko gela bikoitz bateko **altzariak salgai.** Egoera onean. ☎ 76 18 61.
- Motorrean ibiltzeko kasako integrala** erosiko nuke. Merke bada hobe. ☎ 76 10 04.
- Errekuperatutako eta berriztutako **altzariak salgai.** ☎ 76 25 12 / 76 82 17.
- Nissan Vanette** furgoneta bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41.
- 4 metroko **ADRIA** karabana salgai. 4-5 pertsonarentzako. Prezio onean. ☎ 76 49 14 (gauez).

- Marketari lana** duen sarerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.
  - Software-dun **2.400 BPS modema salgai.** Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.
  - SEGA Megadrivea** salgai. (3 jokurekin). 18.000 pzt. ☎ 76 45 21 (Jabi).
- LANA**
- Etxeko lanak** egin edota umeak zainduko nituzke. ☎ 76 44 67 (Leire).
  - AutoCAD, FP2** Informatikan praktiketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.
  - Emakumezko batek **haurrak zaindu** eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).
  - Itzulpen** eta **interprete** lanak egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.
  - Esperientziadun** neska batek **haurrak zaindu** edota **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 58 10.

**Hildakoak**

*Francisco Zabala Gallastegi*  
maiatzak 1, 63 urte  
*M. Asuncion Ibarzabal Arizmendarreta*  
maiatzak 1

**Jaiotakoak**

*Ainboa Alostui Agirre*, apirilak 27  
*Ainboa Agiriano Legarra*, apirilak 28  
*Ane Lorea Larrañaga Altolagirre*, ap. 28  
*Elene Etxaniz Agirre*, apirilak 29  
*Janire Fernandez Masa*, maiatzak 1  
*Andoni Narbaez Lizarralde*, maiatzak 4

**AUTOPULLMANS ARABA**

**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

**EXLIKUN**

**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA



## ALDA ITZAZU ZURE UKIPEN LENTEAK ONENENGATIK

**14.000** pzta.tan  
zure lenteen  
ordez  
**BAUSCH & LOMB**  
lente bigunak  
jarriko  
dizkizugu.



Ezagutzen  
al dituzu  
erabili eta botatzeko  
ukipen lenteak?  
**PROBA ITZAZU**  
Pare bat  
**DOAN**  
jarriko dizugu.

Seequence

Opticos Asociadosen eskaintza da.



1993ko **MAIATZAREN 15era arte** baliogarria.

**P. Manso**  
Optika

Irizar pasealekua, 2  
**BERGARA**

## TEMPRA STADIO



**ERAKUSKETA:**  
Ibargarai 39  
BERGARA

**TAILERRAK:**  
Antigua Auzoa  
ANTZUOLA

**Autoberezi FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA